

Gernika BHIko ikaslea dan Asier Galarzak jantzi dau aurtengo Bizkaiko Eskolartekoko txapela

Oinak buruan lelopean egun biribila ospatu da Gernika-Lumoko Astran. Bertsoaren bueltan olgetan ibili dira gazteak. Goizean, idatzizko finala jokatu da lehenengo. Ostein, talde argazkia atera, eta bat-bateko finala jokatu da. Finalistak, hurrengoak izan dira: Aitor Bizkarra Ruiz, Ander Uzelai Aristi, Asier Alcedo Cano, **Asier Galarza Garai** (Gernika BHI), **Eneko Aldana Carrasco** (Gernika BHI), Iker Garitagoitia Astigarraga, **Koldo Gezuraga Sejjido** (Gernika BHI) eta Unai Mendiburu Valor.

Buruz burukoa Asier Galarzak eta Aitor Bizkarrak jokatu dabe, eta azkenean, Asier Galarzak jantzi dau aurtengo Bizkaiko Eskolartekoko txapela.

Galarza eta Bizkarrak bagilaren 21ean Orion jokatuko dan Euskal Herriko finalean kantauko dabe.

Sari banaketaren ostean, alkarregaz bazkaldu dabe Astran bertan. Arratsaldean bertso eskolen tartearen ostean, Oskar Estangaren erromeria egon da iluntzera arte.

Eskolarteko txapelketea Bizkaiko Bertsozale Alkarteak eta Ikastolen Alkarteak antolatzen dabe, Laboral Kutxak babestuta eta Gernika-Lumoko Udalak eta Astrak lagunduta.

Institutuko guztion partez zorionak eta aurrera Asier!

<http://www.bertsozale.com/eu/bizkaia/albisteak/bertsoagaz-olgetan-ari-dira-astran-1>

<http://www.bizkaie.biz/orokorra.php?atala=2&id=12925&sec=20&fecha=2014-06-09>

<http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/es/asier-galarzak-irabazi-du-bizkaiko-eskolarteko-bat-bateko-finala-gernika-lumoko-astran/>

<http://www.nontzeberri.com/Albiste2.aspx?a=6891>

http://www.astragernika.net/ai1ec_event/bizkaiko-bertso-eskola-eguna/?instance_id=4236

<http://www.naiz.info/eu/agenda/evento/bizkaiko-eskolarteko-txapelketako-finala-eta-bertso-eskolen-eguna-gernika-lumon>